



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

7.- Akademia Antolakuntza:

- a) Irakaskuntza motei eta taldeen tamainari buruzko arautegia: aurkezpena.

7.- Organización Académica:

- a) Presentación de la Normativa sobre tipos de docencia y dimensionamiento de grupos.

## **NORMATIVA SOBRE TIPOS DE DOCENCIA Y DIMENSIONAMIENTO DE GRUPOS EN EL MARCO DE CRÉDITOS EUROPEOS ECTS**

### **JUSTIFICACION**

El objetivo de la presente normativa es establecer los criterios que permitan pasar del sistema actual de docencia, basado en la enseñanza, al diseñado por la declaración de Bolonia, que tiene como ejes fundamentales el autoaprendizaje (dirigido) y la adquisición no sólo de conocimientos, sino también, y fundamentalmente, de destrezas. Esta adaptación nos obliga a plantear la renovación de nuestras actuales metodologías educativas, orientándolas decididamente hacia este modelo; lo que implica que cada asignatura o materia tendrá la correspondiente metodología docente mediante la que será impartida, siendo su guía docente el documento donde esta metodología venga recogida en detalle. Será en las guías donde se recogerá de forma concreta la intensidad con que se usarán los diferentes tipos de docencia que se emplearán para la enseñanza de la materia.

La adaptación de nuestra Universidad al EEES se está realizando de forma experimental en algunas materias de las actuales titulaciones, mediante la participación voluntaria de profesorado que requiere de un procedimiento para este período transitorio hasta la implantación generalizada de las futuras titulaciones de grado y para las ya aprobadas de posgrado, a fin de no incurrir en consumos inadmisibles de capacidad docente del profesorado.

Téngase presente que las actuales titulaciones (y sus asignaturas) están dimensionadas sobre la base de que el aprendizaje del alumnado se fundamenta preferentemente en la docencia presencial, algo que no sucederá con las titulaciones de grado y másteres que nos aguardan. Debido a esto, la reestructuración de los grupos de las asignaturas en las que se innove en metodología docente, debe ser comedida y realizarla sin perder de vista las necesidades sociales que tenemos en la Educación Superior.

Por otra parte, la ratio docente/discente de la UPV/EHU es de 1/12 en términos globales, lo que nos sitúa a nivel de los países europeos de referencia. A pesar de que este valor es aceptable, tenemos reales distorsiones en la distribución del profesorado entre los departamentos y titulaciones. No todos los departamentos están adecuadamente provistos de los necesarios recursos docentes y no todas las titulaciones alcanzan la ratio acorde a los tipos de grupos docentes que deben imprescindiblemente formarse para impartir la docencia.

Otra conclusión es que, asumiendo cierta holgura estructural en los departamentos y asumiendo que el encargo docente del profesorado a tiempo completo fuera de 24 créditos y que un alumno a tiempo completo se matriculara de 60 créditos ECTS anuales, la ratio anterior se traduce en un tamaño medio de grupo de entre 36 y 40, considerando la simplificación de que toda la docencia de cualquiera que fuese la asignatura se hiciese en grupos de un mismo tamaño. Por tanto, la modulación de grupos de tamaños inferiores a esta media para algunos tipos de docencia, sólo será posible si viene acompañada de la existencia de otros grupos de docencia de tamaño superior al indicado.

Así mismo se puede afirmar que, no es en modo alguno natural que una asignatura se imparta mediante un único tipo de docencia ni que todos los tipos de docencia requieran el mismo tamaño de grupo. Para posibilitar y facilitar la toma de decisiones respecto a la configuración general de los grupos se proponen los tipos de docencia en los que tiene que desarrollarse esta actividad.

De cuanto antecede, se desprende que es necesario establecer unos criterios y un procedimiento que permita llevar a cabo las actuaciones necesarias para gestionar tanto las enseñanzas actuales que han incorporado de forma puntual y experimental la metodología basada en el autoaprendizaje, como en la implantación generalizada de dicha metodología en las nuevas enseñanzas de Grado y de Posgrado.

En consecuencia, la autorización de los grupos de docencia, para cada año académico, se realizará de acuerdo con las previsiones que se establecen en los artículos siguientes:

### Artículo 1. Tipos de docencia presencial

- 1. Clases magistrales, clases teóricas (M):** Con cualquiera de estos términos nos referimos a la modalidad que se utiliza habitualmente para transmitir conocimientos teóricos a grupos numerosos de estudiantes. El profesor expone visiones panorámicas de la asignatura; resalta sus líneas maestras; encuadra las partes de que se compone – los temas o bloques- en el todo de la asignatura; relaciona los diferentes temas; y se centra en los aspectos principales de estos. La docencia basada principalmente en este tipo de docencia no garantiza la adquisición por parte del alumnado de habilidades sumamente importantes, pero es la más usada –aunque no la única- para impartir la docencia de la teoría.
- 2. Seminarios (S):** son un tipo de docencia que facilita la interacción fluida entre un profesor y un reducido grupo de estudiantes. Se emplean de forma habitual para presentar trabajos, analizar casos, resolver supuestos, resolver problemas, exponer un tema teórico sencillo. A diferencia de lo que sucede en las Prácticas de Aula, el profesor no es el protagonista, limitándose a escuchar, atender, orientar, aclarar, valorar, mostrar cómo se hacen las cosas, evaluar. Es un tipo de docencia esencial para facilitar la evaluación continua del alumnado y conocer el rendimiento del autoaprendizaje. Sin ella no hay metodología docente orientada a la autoformación. Algunas de las más preciadas habilidades que debe desarrollar el alumnado (saber presentar y exponer un trabajo, saber resumir, saber repentizar un análisis, saber trabajar en grupo...) se consiguen precisamente gracias a los Seminarios.
- 3. Prácticas de Aula (PA):** constituyen un tipo de docencia en las que un profesor hace una exposición o resolución práctica, con fines ilustrativos, ante un grupo de estudiantes no muy amplio. Aunque interacciona con los estudiantes, no son éstos los que llevan el peso de la clase, sino el profesor. Es un tipo de docencia que complementa los aspectos prácticos de la teoría expuesta en las clases magistrales y es idónea para coordinar los varios grupos de Seminario, repartir entre ellos las diferentes tareas semanales y transmitirles pautas comunes sobre la forma de hacer los trabajos. También se exponen en las sesiones de Prácticas de Aula los resultados principales de los trabajos más sobresalientes presentados en los Seminarios.
- 4. Prácticas de Laboratorio (PL):** son un tipo de docencia en la que un grupo no numeroso de estudiantes, cada uno ocupando su plaza, realiza ensayos, experimenta, practica mediciones, etc., usando infraestructura (los laboratorios), equipos de trabajo y consumibles pertenecientes a la universidad, en presencia de profesorado universitario capaz de resolver posibles dudas y de realizar funciones de vigilancia. Las Prácticas de Laboratorio siempre están perfectamente programadas, dando lugar a posibles desarrollos posteriores en el aula. Son habituales en las titulaciones de Ciencias y Tecnológicas. Por extensión, cualquier tipo de práctica que se realice en grupos no numerosos de estudiantes y que requiera una infraestructura y equipamiento individuales para los estudiantes (como las que se usan para el estudio de los idiomas, por ejemplo) también se denominan Prácticas de Laboratorio. Estas últimas se utilizan en las Filologías.
- 5. Prácticas de Ordenador (PO):** son sesiones docentes en las que, en un aula informática, un grupo de estudiantes, bajo la dirección de un profesor o profesora, realiza una actividad práctica programada que requiere el uso del ordenador, cada uno ocupando su plaza. El software informático constituye en este tipo de práctica la herramienta de trabajo fundamental, y casi exclusiva, del alumnado; el ordenador no es más que el portaherramientas.
- 6. Talleres (No Industriales) (TA):** constituyen un tipo de docencia en la que cada estudiante del grupo trabaja en una tarea diferente y de modo personal en presencia de profesorado que resuelve particularmente al alumnado que lo demanda la duda o dificultad que le plantee. El profesor carece

del protagonismo que tiene en las Prácticas de Aula y los estudiantes no tienen que dar cuenta de una tarea que deben llevar concluida y bien resuelta (como sucede en los Seminarios). Normalmente, los trabajos que realiza el alumnado en los Talleres se prolongan a lo largo de sesiones sucesivas, que en algunos casos puede ser la totalidad del periodo académico. Podríamos decir que los Talleres consisten en sesiones en las que grupos de estudiantes ejecutan prácticas individuales tuteladas. Son clásicos los Talleres de dibujo, de pintura, de cerámica, de proyectos, propios de las titulaciones de Bellas Artes y de Arquitectura. Como, por una parte, los estudiantes llevan a cabo sus trabajos individualmente y, por otra, el profesor debe estar accesible a todos ellos para resolverles las dudas que singularmente le planteen, el tamaño habitual de los grupos de Taller suele ser intermedio. No es infrecuente que una sesión docente de Taller comience con una breve explicación o puesta en común a cargo del profesor.

7. **Talleres Industriales (TAI):** son sesiones docentes en las que un grupo no muy amplio de estudiantes entra en contacto con maquinaria, aparatos o instalaciones industriales: comprenden su funcionamiento; aprenden a manejarlos; realizan tareas y mediciones;... Los Talleres Industriales en los que se utilizan maquinaria o aparatos que entrañan riesgo solo pueden realizarse en grupos relativamente reducidos.
8. **Prácticas Clínicas (PCL):** son sesiones docentes que tiene siempre por objeto enseñar al alumnado en presencia de pacientes reales, por lo que deben realizarse en muy pequeños grupos. Son habituales e imprescindibles en las titulaciones pertenecientes al campo de las Ciencias de la Salud.
9. **Prácticas de Campo y Deportivas (PCAyD):** son un tipo de docencia que tiene por objeto llevar a cabo la enseñanza sobre el terreno, es decir, en el sitio mismo donde el hecho, el fenómeno o la realidad estudiada tiene lugar. Son de uso habitual en las titulaciones de Ciencias, pero también se utilizan en las Tecnológicas y las de las Ciencias Sociales.

## Artículo 2. Tamaño de grupos.

1. El tamaño de los grupos, en función de cada tipo de docencia, será el siguiente:

TIPO DE DOCENCIA	TAMAÑOS MEDIOS-MÁXIMOS
Clase Magistral:	100 - 120
Seminario:	15 - 20
Prácticas de Aula:	40 - 60
Prácticas de Laboratorio:	16 - 24
Prácticas de Ordenador:	24 - 30
Talleres (no industriales):	35 - 50
Talleres Industriales:	14 - 24
Prácticas Clínicas:	5 - 8
Prácticas de Campo y Deportivas:	18 - 30

2. Las solicitudes de grupos de tamaños inferiores a los establecidos en el apartado anterior para algunos tipos de docencia deberán venir acompañadas de la propuesta de otros tipos de docencia con grupos de tamaño superior al indicado.
3. La superación de los tamaños máximos de grupos establecidos en este artículo, justifica la autorización de un nuevo grupo. El desdoble se producirá tratando todos los grupos resultantes de forma equilibrada.

### **Artículo 3. Equivalencia, en horas, del crédito ECTS.**

Se establece que el crédito europeo ECTS equivale a 25 horas de trabajo requeridas por el alumnado para la adquisición de los conocimientos, capacidades y destrezas correspondientes a una materia. En estas horas deberán estar comprendidas las dedicadas a clases lectivas, teóricas o prácticas; las horas de estudio para llevar la asignatura preparada al día; las dedicadas a la realización de seminarios, trabajos, prácticas o proyectos; y las exigidas para la preparación y realización de los exámenes y pruebas de evaluación.

### **Artículo 4. Horas presenciales y magistrales.**

1. Por cada crédito que tenga una materia se imputarán entre 7,5 y 10 horas de docencia presencial, quedando a criterio del responsable de la materia, la elección del valor concreto en cada caso. Se exceptúan de esta norma los prácticum, proyectos, prácticas tuteladas y materias análogas.
2. Del total de las horas presenciales de una materia podrán impartirse mediante el tipo de docencia magistral un máximo del 60%. El resto de las horas presenciales de la materia se imputarán al resto de los tipos de docencia señalados en el apartado anterior.
3. Para cada materia, una vez realizada la descripción de los objetivos, las competencias, las destrezas y las habilidades, debe cuantificarse el tiempo que se requiere, para cada tipo de docencia, tanto del docente como del estudiante. Esta información se recogerá de acuerdo con el procedimiento que se establezca desde la Dirección de Plantilla Docente.

### **Artículo 5. Materias de Planes de estudios actuales que han implantado créditos ECTS**

1. Para adaptar los actuales tipos de créditos (teóricos y prácticos) de los planes de estudios vigentes, se establece el criterio de que los créditos teóricos se impartan a través de clases magistrales, talleres no industriales y seminarios, y los prácticos en el resto de tipos de docencia, excepto los talleres no industriales que podrán utilizarse indistintamente para imputar créditos teóricos o prácticos.
2. Los tipos de docencia que se grabarán en la oferta docente a partir del curso 2007/08, inclusive, serán los definidos en esta normativa con las dimensiones máximas por grupos señaladas en el artículo 2.1 de esta normativa.
3. La aplicación experimental de la nueva metodología docente para una materia se unificará, en todos sus grupos, una vez transcurridos dos años de su implantación.
4. A efectos de cómputo docente, únicamente se considerarán los tipos de docencia definidos en el artículo 1 de esta normativa.

### **Disposiciones finales.**

1. La presente normativa será de aplicación para las titulaciones de grado y de posgrado desde su implantación y, a partir del curso 2007/08 inclusive, para las materias de las actuales titulaciones de 1<sup>er</sup> y 2<sup>o</sup> ciclo que tienen implantada de forma experimental la metodología prevista en el Espacio Europeo de Educación Superior (EEES).
2. La autorización de grupos para las actuales titulaciones de 1<sup>er</sup> y 2<sup>o</sup> ciclo que no incorporen esta metodología, se realizará según lo establecido en el acuerdo de la Junta de Gobierno celebrada el 29.10.98.
3. Se faculta a la Subcomisión de Organización Académica de la UPV/EHU para elaborar normas complementarias que desarrollen la presente normativa.
4. Se faculta a la Vicerrectora o el Vicerrector responsable de esta gestión para establecer el procedimiento y el calendario, con la colaboración de la Subcoa y de la dirección de la plantilla docente. Así mismo deberá interpretar y resolver cuantas cuestiones se planteen en la aplicación de esta normativa.
5. De los aspectos no previstos en esta normativa o en aquella que la desarrolle, se atenderá a lo establecido en la legislación vigente.

### **Disposición derogatoria.**

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones que se opongan a lo previsto en la presente normativa.

## **ERABAKIA, IRAKASKUNTZA MOTEI ETA TALDEEN TAMAINARI BURUZKO ARAUTEGIA, ECTS EUROPAR KREDITUEN MARKOAN**

### **AZALPENA**

Arautegi honen helburua da irizpideak zehaztea oraingo irakaskuntza sistematik Boloniako adierazpenak diseinutako sistemara. Gure oraingo sistema irakaskuntzan oinarritzen den bitartean, Bolognakoaren ardatz nagusiak dira autoikaskuntza (gidatua) eta, ezagutzen eskurapenez gain, trebetasunen eskurapena ere bai. Horretarako, gure irakaskuntzaren metodologiak aldatu behar ditugu, eta eredu berrira egokitu; horrek esan gura du irakasgai edo gai bakoitzak bere metodologia izango duela, eta metodologia hori xehetasunez azalduta egongo den dokumentuak gidatuko duela haren irakaskuntza. Gida horietan zehaztuko da zernolako indarraz erabiliko diren irakaskuntza mota desberdinak gaia irakasterakoan.

Gure unibertsitatea modu esperimentalean egokitzen hasi da Europako Unibertsitate Eremura zenbait titulaziotan, zenbait irakaslek borondatez esperientzia horretan parte hartuta. Horrek prozedura jakin bat eskatzen du, bitarteko sasoi honetarako, etorkizunean graduko titulazio guztiak eta dagoeneko onartuta dauden graduondokoak ezartzen diren arte, hartara irakats-ahalmen larregirik ez erabiltzeko.

Kontuan izan behar da oraingo titulazioak (eta euren irakasgaiak) antolatuta daudela ikasgelako irakaskuntzan oinarritzen den eredu batetik abiatuta, baina hori ez da horrela izango etorkizunean graduko titulazio eta masterretan. Hori dela eta, metodologia berrituko den honetan neurritz jakatu behar da taldeak berregituratzean, ahaztu barik goi mailako irakaskuntzan daukagun premia sozialak.

Bestalde, irakasle/ikasle ratioa EHU<sup>n</sup> 1/12 da, oro har, eta horrek erreferentzia ditugun Europako herrialdeen parean jartzen gaitu. Hori onargarria bada ere, alde handiak daude sail eta titulazio batzuetatik beste batzuetara. Sail guztiak ez daude behar bezala prestatuta behar diren irakats-baliabide guztiekin, eta titulazio guztietan ez dira heltzen behar diren talde motei dagozkien ratioetara.

Bestalde, sailetan soberakin estrukturalak daudela aintzat hartuta, eta arduraldi osoko irakasleen irakats-betebeharrak 24 kreditukoak direla jotzen badugu, eta arduraldi osoko ikasle bat urtean 60 ECTS kreditutan matrikulatuko litzatekeela, lehen esandako ratioaren arabera, batez besteko taldeak 36-40 ikasle izango litzuzke, onartzen baldin badugu —sinplifikazioa bada ere— gai guztiak neurri bereko taldeekin irakatsiko liratekeela. Beraz, irakaskuntza mota batzuetan hori baino talde txikiagoak egiteko, ezinbestekoa da beste talde batzuk hori baino handiagoak izatea.

Era berean, irakasgai bat ez da inolaz ere irakaskuntza mota bakarraren bidez eman behar, eta irakaskuntza mota guztietan talde guztiek ez dute tamaina bera eduki behar. Hori dela eta, taldeen egitura eta tamainari buruzko erabakiak errazago hartzeko, zenbait irakaskuntza mota proposatuko ditugu:

Beraz, irizpide batzuk eta prozedura bat zehaztu behar dira, behar bezala kudeatu ahal izan ditzagun bai orain modu esperimentalean autoikaskuntzaren metodologia bereganatu duten ikasketak eta bai etorkizunean graduko eta graduondoko ikasketak guztiak, metodologia hori titulazio guztietan erabiltzen denean.

Hortaz, ikasturte bakoitzean taldeak baimentzeko, hurrengo artikuluetan zehazten diren irizpideei jarraituko zaie:

## 1. artikulua.- Ikasgelako irakaskuntza

- 1. Eskola magistralak, eskola teorikoak (M):** termino horiekin adierazten dugu ezagutza teorikoak ikasle-talde handiei transmitzeko erabili ohi den modalitatea. Irakasleak gaiaren ikuspegi orokorra azaltzen du; ildo nagusiak nabarmentzen ditu; irakasgaiaren osotasunak dauzkan zatiak aurkezten ditu (gaiak edo blokeak); gaiak erlazionatzen ditu; gaien alderdi garrantzitsuenei erreparatzen die. Irakaskuntza mota honek ez du bermatzen ikasleek zeharo garrantzitsuak diren zenbait trebetasun eskuratuko dituztenik, baina berau da erabiliena (nahiz ez bakarra) teoria irakasteko.
- 2. Mintegiak (M):** irakaslearen eta ikasle-talde txiki baten arteko interakzio bizia errazten duen irakaskuntza mota da. Lanak aurkezteko, kasuak analizatzeko, suposamenduak ebazteko, arazoak ebazteko eta gai teoriko simple bat azaltzeko. Ikasgelako praktiketan ez bezala, irakaslea ez da protagonista; mugatzen da entzutera, aditzera, bideratzera, argibideak ematera, baloratzera, gauzak zelan egiten diren erakustera eta ebaluatzera. Funtsezkoa da ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko eta autoikaskuntzaren etekina jakiteko. Hori barik ez dago autoprestakuntzara bideratutako metodologiari. Ikasleek garatu beharreko trebetasun garrantzitsuenetako batzuk (lan bat aurkezten eta azaltzen jakitea, laburpenak egiten jakitea, bat-batean analisi bat egiten jakitea, taldean lan egiten jakitea...) mintegien bidez eskuratzen dira.
- 3. Ikasgelako praktikak (IP):** irakasleak zerbait azaltzen du edo ebazpen praktikoa egiten du ikasleentzako argibideetarako, oso handia ez den talde baten aurrean. Ikasleekin interakzioan sartzen bada ere, eskolaren pisua ez daukate ikasleek, irakasleak baino. Irakaskuntza mota honek osatzen ditu eskola magistraletan emandako teoria kontu praktikoeekin, eta egokiena da mintegiko talde bat baino gehiago koordinatzeko, asteko atazak euren artean banatzeko eta guztiei lanak egiteko jarraibide komunak emateko. Ikasgelako saio praktikoeetan, bestalde, mintegietan aurkeztutako lanik onenen emaitza nagusiak aurkezten dira.
- 4. Laborategiko praktikak (LP):** ikasle-talde ez oso handi batean, ikasleek entseguak, esperimenduak, neurketak etab. egiten dituzte, bakoitzak bere lekuan, unibertsitatearen azpiegitura (laborategiak), lan ekipoak eta ondasun suntsigarriak erabiliz, irakasleak bertan daudela zalantza argitzeko eta praktika zaintzeko. Laborategiko praktikak ondo progratuta daude beti, eta jarraipena izan dezakete gero ikasgelan. Ohikoak dira zientzia eta teknologiko titulazioetan. Zentzu zabalean, talde ez oso handietan egiten diren praktikak guztiak, ikasle bakoitzarentzako azpiegitura eta tresneria behar dutenak (hizkuntza laborategietan erabiltzen direnak, esaterako), laborategiko praktikak deitzen dira. Azken horiek filologietan erabiltzen dira.
- 5. Ordenagailuko praktikak (OP):** informatika-gela batean ikasle talde batek, irakaslearen gidaritzapean, programatutako jarduera praktikoa bat egiten dute ordenagailuarekin, bakoitzak berea duela. Honelako praktiketan softwarea da tresna nagusia eta ia bakarra; ordenagailua euskarria besterik ez da.
- 6. Tailerrak (ez industrialak) TA:** taldeko ikasle bakoitzak ataza batean dihardu bere kontura, irakaslea bertan dagoela ikasle bakoitzak aurkezten dizkion zalantzak argitzeko edo arazoak konpontzeko. Irakasleak ez dauka ikasgelako praktiketan daukan protagonismoa eta ikasleek ez dute aurkeztu behar ataza bat amaituta eta ondo eginda (mintegietan ez bezala). Normalean ikasleek tailerretan egiten dituzten lanak saio batean baino gehiago hartzen dituzte errenkadan, eta batzuetan ikastaldi osoa hartzen dute. Esanenezake tailerretan ikasle taldeek gidaritzapeko praktika indibidualak egiten dituztela. Adibide klasikoak dira irudigintza, pintura, zeramika eta proiektu-tailerrak, Arte Ederretako eta Arkitekturako titulazioetan. Alde batetik ikasleek banan banaka egiten dituzte lanak, eta, bestetik, ikaslea gertu egon behar da bakoitzak aurkezten dizkion zalantzak argitzeko. Hori dela eta tailerretako taldeakertainak izan ohi dira. Sarritan tailerretako saioak irakaslearen azalpen txiki batekin edo laburpen batekin hasten dira.



7. **Tailer industrialak (TAI):** halakoetan ikasle-talde ez oso handi bat aurrez aurre jartzen da makina, tresna edo instalazio industrialekin: ikasten dute zelan funtzionatzen duten, erabiltzen ikasten dute, atazak eta neurketak egiten dituzte... Arriskuren bat daukaten makina edo tresnak erabili behar diren tailerretan taldeak txiki xamarrak izan behar dira.
8. **Praktika klinikoak (PKL):** benetako pazienteekin ematen diren eskolak dira. Hori dela eta, oso talde txikiekin egin behar dira beti. Ohikoak eta ezinbestekoak dira Osasun Zientzien arloko titulazioetan.
9. **Landa-praktikak eta kirol -praktikak (LP eta KP):** ikasi beharreko gertakaria edo errealitatea jazotzen den lekuan bertan ematen den irakaskuntza da. Zientzietako titulazioetan egin ohi dira, baina Teknologia eta Gizarte Zientzietako titulazioetan ere erabiltzen dira.

## 2. artikulua.- Taldeen tamaina.

1. Irakaskuntza-motaren arabera, honelakoak izango dira taldea, tamainari dagokionez:

IRAKASKUNTZA MOTA	BATEZ BESTEKO-GEHIENENKO TAMAINAK
Eskola magistrala:	100 - 120
Mintegia:	15 - 20
Ikasgelako praktikak	40 - 60
Laborategiko praktikak:	16 - 24
Ordenagailuko praktikak:	24 - 30
Tailerrak (ez-industrialak):	35 - 50
Tailer industrialak:	14 - 24
Praktika klinikoak:	5 - 8
Landa-praktikak eta kirol praktikak:	18 - 30

2. Irakaskuntza-mota batzuetarako aurreko atalean zehaztutakoak baino talde txikiagoak egitea eskatu nahi izanez gero, eskariarekin batera proposamen bat aurkeztu behar da beste irakaskuntza-mota batzuetan taulan zehaztutakoak baino talde handiagoak egiteko.
3. Artikulu honetan zehaztutako gehieneko taminak gaindituz gero, talde berri bat egitea baimenduko da. Taldeak banatu ondoren sortutako talde guztiak orekatuak izango dira.

### **3. artikulua.- ECTS kredituaren balioa ordutan.**

ECTS europar kreditua 25 lan orduren parekoa da, gai bati dagozkion ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak bereganatzeko ikasleak egin beharreko lanari dagozkionak. Lan-ordu horietan honakoak sartzen dira: eskola-orduak, bai teorikoak bai praktikoak; irakasgaia egunean izateko ikasten eman beharreko orduak; mintegiak, lanak, praktikak edo proiektuak egiteko erabilitako orduak; eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatu eta egiteko beharrezko direnak.

### **4. artikulua.- Ikasgelako orduak eta eskola magistralak.**

1. Gaiaren kreditu bakoitzari ikasgelako 7,5 ordutik 10 ordura bitarteko balioa atxikiko zaio. Gaiaren arduradunak erabakiko du kasu bakoitzean kreditua zenbat orduren parekoa izango den. Dena dela, ordu aukera hori ezingo da aplikatu praktikumetan, proiektuetan, praktika gidatuetan eta antzeko gaietan.
2. Ikasgelako ordu guztien %60 irakatsi ahal izango dira, gehienez ere, eskola magistral moduan. Ikasgelako gainerako orduetan aurreko atalean aipatutako irakaskuntza-motak irakatsiko dira.
3. Gai bakoitzerako helburuak, gaitasunak eta trebetasunak behin zehaztuta, irakaskuntza-mota bakoitzean emango den denbora zehaztu behar da, bai irakaslearentzat bai ikaslearentzat. Informazio hori guztia Irakasleen Plantillako Zuzendaritzak ezarritako prozedurari jarraituz bilduko da.

### **5. artikulua.- ECTS kredituak dagoeneko ezarri diren gaiak**

1. Oraingo ikasketa-planetako kredituak (teorikoak eta praktikoak) egokitzeko irizpide hau erabiliko dugu: kreditu teorikoak eskola magistralen, tailer ez-industrialen eta mintegien bidez emango dira, eta praktikoak, berriz, gainerako irakaskuntza-moten bidez. Tailer ez-industrialak bietarako erabili ahal izango dira: kreditu teoriko nahiz praktikoetarako.
2. 2007/08 ikasturtetik aurrera (berori barne) irakats-eskaintzan grabatuko diren irakaskuntza-motak arategi honetan zehaztu direnak izango dira, 2.1. artikuluan zehaztutako gehieneko taminak errespetatuta.
3. Gai batean metodologia berri bat modu esperimentalean aplikatzen hasten denean, lehenengoz ezarri denetik bi urtera gai horretako talde guztietan bateratuko da.
4. Irakats-orduak zenbatzerakoan, arategi honetako 1. artikuluan zehaztutako irakaskuntza-motak besterik ez dira aintzat hartuko.

### **Azken xedapenak**

1. Arautegi hau graduko eta graduondoko titulazioetan aplikatuko da ezartzen direnetik; Europako Unibertsitate Eremuan aurreikusitako metodologia modu esperimentalean ezarrita daukaten oraingo titulazioen 1. eta 2. zikloetako gaietan, berriz, 2007/08 ikasturtean hasita, berori barne.
2. Metodologia hau aplikatzen ez duten 1. eta 2. zikloko oraingo titulazioetan taldeak baimentzeko Gobernu Batzarraren 98.10.29ko Erabakiari jarraituko zaio.
3. EHUko Akademia Antolakuntzako Azpibatzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak egiteko.
4. Gai hau kudeatu behar duen errektoreordeari ahalmena ematen zaio prozedura eta egutegia zehazteko, Akademi Antolakuntzako Azpibatzordearen eta Irakasleen Plantillako Zuzendaritzaren laguntzarekin. Era berean, arautegi hau aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak argitu eta interpretatuko ditu.
5. Arautegi honetan eta bera garatzen dutenetan aurreikusita ez dagoen guztirako indarrean dagoen legeriari jarraituko zaio.

### **Xedapen indargabetzailea**

Indargabetuta geratzen dira arautegi honekin bat ez datozen xedapen guztiak.